

Ikastaroa

Afrikako emakumeen Giza Eskubideen aldeko aliantza feministak



Aurkezpena

Ikastaro honen helburua da kontzientzia kritikoa sortzea Saharaz hegoaldeko Afrikako emakumeen egoeraren gainean, pairatzen dituzten pobrezia eta desberdintasunaren toki- eta mundu-mailako arrazoiaren gainean eta beren eskubideak babesteko abiatzen dituzten estrategien gainean.

Ikastaro hau, gainera, hainbat esperientzia-trukeren atariko da, Senegalen eta Euskadin, Kébémérreko, Senegalgo eta Euskadiko emakumeen erakundearen arteko aliantzak sortzea xede.

Hartzaileak

Emakume aktibistak, emakumeen erakundeetako eta mugimendu feministako kideak, giza eskubideetan eta Saharaz hegoaldeko Afrikan interesa duten pertsonak, gizarte-erakundeetako teknikariak eta boluntarioak, administrazio publikoetako teknikariak, eta unibertsitateko ikasle eta irakasleak.

Metodologia

Prestakuntza- eta trebakuntza-prozesu hau aurrez aurre gauzatzen da, metodologia kritikoa, parte-hartzailea eta jakintzak birbalioesten dituena erabiliz. Saio bakoitzaren hasieran azalpena egin ondoren, dinamika parte-hartzaileak abiatzen dira, bertaratutako pertsonen eta taldeen arteko trukea bultzatzeko.

Saio bakoitza garatu aurretik, gomendatutako bibliografia eta material osagarriak zein sakontzekoak helaraziko dira.

Ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria nahi duten pertsonen 5 saioetatik 4tan, gutxienez, parte hartu beharko dute, eta amaieran hausnarketa-lana egin Euskaditik

Afrikako emakumeen giza eskubideak sustatzeko bultzatzen diren estrategiei buruz. Lan hori idazkia, audioa, bideoa edo grafikoa izan daiteke, eta aurkezteko epemuga azaroaren 26a izango da. Hiru lan onenak Nazioarteko Elkartasunaren sare sozialetan eta webgunean argitaratuko dira, aldeztu aurretik baimena jasota.

Lekua

Marienea. Basauriko Emakumeen Etxea, Kareaga Goikoa kalea 54, Basauri. **Azaroaren 12ko** saioa izan ezik, hori **Basozelai gizarte-etxean izango da**: Basozelai kalea 11, Basauri (Marieneatik 300 metrora).

Hurtzaindegi zerbitzua

Hurtzaindegi zerbitzu bat egongo da aurretik eskatzen bada.

Izena emateko

Online inprimaki



Informazio gehiago

derechoshumanossi@sol-inter.org

94 479 22 58

Programa

Urriak 22, 17:00-20:00

1. saioa. Emakumeen giza eskubideak babesteko esparrua Afrikan: kolektibitatearen garrantzia

Modulu honen bitartez, Saharaz hegoaldeko Afrikan emakumeen giza eskubideak babesteko dauden esparru formal eta informalak, nazioartekoak, eskualde-, nazio- eta toki-mailakoak ezagutarazi nahi dira. Horretarako, ibilbide historiko eta geografikoa egingo da kontinentean zehar, andre afrikarrek esparru horietan egindako ekintzak balioesteko.

Roser Manzanera Ruíz. Granadako Unibertsitateko Soziologia-irakasle titularra, eta bertako Generoaren eta Emakumeen Unibertsitate Institutuko kidea. Generoan, garapenean, ekonomian eta globalizazioan aditua, eskarmentu handia du Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdeko landa-lanean, hala nola Tanzanian, Sudanen, Sierra Leonan eta Nigerian.

“Emakumeen autoantolaketa Kébémerrren indarkeriarik gabeko bizitarako”

Codou Fall, Kébémerreko Emakume Aktibisten Sarearen ordezkaria

Urriak 23, 10:00-13:00

2. saioa. Genero-rolak eta feminismoak Saharaz hegoaldeko Afrikan: Senegalgo kasu zehatza

Saharaz hegoaldeko Afrikako familietan, komunitateetan eta gizarteetan andre eta gizonei esleitzen zaizkien genero-rolen berri emango zaie ikasleei. Rol horiek zein gizarte-alderdik ezarri dituzten aztertuko da: kolonizazioa, erlijioa, kultura... Halaber, feminismoak kontinente afrikarrean berezkoa duen idiosinkrasia azalduko da. Feminismo hitzaren gaitzespenetik, Mendebaldeko inposaketatzat joa delako, pixkanaka sortu diren feminismoetaraino. Horien adierazle teoriko gorenak eta praktitarako jautzia.

Jeanne-Rolande Dacounga Minkette. Arrazismoaren aurkako atibista feminista, ikertzailea eta prestatzailea. Emakumeei buruzko Azterlanetan eta Ikerketan, Azterlan Feministetan eta Genero-azterlanetan doktorea Miguel Hernández eta Jaume I.a unibertsitateetan.

Azaroak 5, 17:00-20:00

3. saioa. Indarkeria matxistak Saharaz hegoaldeko Afrikan: Senegalgo kasu zehatza

Andreek Saharaz hegoaldeko Afrikan pairatzen dituzten indarkeria matxistei buruzko datuak emango dira, eta indarkeria horiei indibidualki nahiz kolektiboki aurre egiteko zein estrategia publiko eta pribatu garatzen diren azalduko. Orobat, beste indarkeria-mota batzuei ere helduko zaie, emakumeen mutilazio genitalari, ezkontza goiztiarrei eta emakumeen egoerari poligamiaren moduko erakundeetan, kasu.

Mercedes Jabardo. Gizarte Antropologiako irakaslea, Gizarte eta Giza Zientzien Saila, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatea.

Genero-indarkeriaren biktimentzako laguntza juridikoa Kébémerrreko Boutique de Droit-en, Senegalen.

Kémelou Tambaou, Emakume Legelari Senegaldarren Elkartearen ordezkaria

Azaroak 6, 10:00-13:00

4. saioa. Genero-berdintasunaren eta “behar bezalako ingurumenaren” arteko harremanak

Ingurumen-krisiak eta klima-aldaketak Saharaz hegoaldeko Afrikan nola eragiten duten aztertuko dugu, eta nola eragiten dieten desberdin andreei eta gizonei. Lehenak zergatik diren kaltetuenak ikusiko dugu: pobrezia, lan-merkatuan presentzia txikiagoa, erabakiak hartzeko tokietan ez egotea. Baita horrek guztiak beren egunerokotasunean dituen ondorioak ere: pobrezia, migrazioak, baliabiderik eza... Era berean, Afrikako andreen erakundeek klima-aldaketaren ondorioak geldiarazteko eta arintzeko bultzatzen dituzten estrategiak aurkeztuko dira, ingurumen-eskubidea giza eskubide gisa jasotzen aitzindaria den eskualde-mailako arau-esparruan bultzatu ere.

Coro J-A Juanena. Ikasketa Afrikarren Taldeko kidea, URJCKo eta beste unibertsitate batzuetako irakaslea, KOIZ Kolonialismo Osteko Ikasketa Zentroaren koordinatzailea.

Azaroak 12, 17:00-20:00

5. saioa. Afrikako emakumeen Giza Eskubideen aldeko aliantza feministak saretzen

Emakumeek Saharaz hegoaldeko Afrikan nozitzen dituzten giza eskubideen urraketak aztertuko dira, hala nola zer-nolako antzekotasunak eta aldeak dauden horien eta emakumeek, bereziki afrikarrek, Euskadin jasaten dituzten artean. Arreta berezia jarriko zaie Saharaz hegoaldeko Afrikako desberdintasunaren eta pobrezia-aren arteko harremanei eta mundu-mailako arrazoiei, zehazki andreei eragiten dieten horiei. Horrez gain, ekintza eraldatzaileak sustatzeko aliatuak izan daitezkeen estrategiak eta mugimenduak, hala nazioartekoak zein toki-mailakoak, aztertuko dira.

Jeanne-Rolande Dacounga Minkette. Arrazismoaren aurkako atibista feminista, ikertzailea eta prestatzailea. Emakumeei buruzko Azterlanetan eta Ikerketan, Azterlan Feministetan eta Genero-azterlanetan doktorea Miguel Hernández eta Jaume I.a unibertsitateetan.

Izena eman